




J.Martitegi

GERNIKAKO HIRIA

Unitate didaktikoen bilduma (4)

Egilea:

Gernikazarra Historia Taldea

Argitaratzailea:

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila.

Babesleak:

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskara Zuzendaritza)

Maketa eta Inprimaketa:

Gertu inprimategia (Oñati)

Urtea: 2010eko edizioa

AURKIBIDEA:

1.- GERNIKA, LUMOKO AUZO ETA PORTUA

- 1-A.- Bizkaia, lurralde pobrea
- 1-B.- Pobrezia gainditzea: Gaztelako artilea
- 1-C.- Burdinak bermatu zuen Bizkaiko ekonomiaren susperraldia.
- 1-D.- Gernika, On Tello baino askoz lehenagokoa
- 1-E.- Gernikako portua
- 1-F.- Mezetatarrek, aberasteko aukerari eutsi

2.- GERNIKA LUMOTIK BEREIZIA

- 2-A.- GERNIKAKO HIRI-GUTUNA
 - Logroñoeko Forua
 - On Telloren hiri-gutunak gernikarrei emandako pribilegioak
 - On Tellok gernikarrei eman zizkien lurraldeak
- 2-B.- GERNIKAKO HIRI-GUTUNA (transkripzioa).
Gernikako fundazioa lumotarren ikuspuntutik.

3.- ON TELLOREN BIOGRAFIA

Zatiketaren erantzulea

4.- LUMO ETA GERNIKAREN ARTEKO LISKARRA

- 4-A.- TIRABIRAK LURRALDEAREKIN
Lurraldeagatik zituzten tirabirekin gogaituta
Mugarritze berri baten beharra
- 4-B.- MERKATU ETA FERIEEN MONOPOLIOAREN AMAIERA

ERANSKINA: ARIKETAK

1.- GERNIKA, LUMOKO AUZO ETA PORTUA

1.A.- BIZKAIA, LURRALDE POBREA

Erdi Aroan, Bizkaiko Jaurerria lurralde pobrea zen. Bere aberastasun iturriak urriak ziren: hostozabalen basoak ziren nagusi eta bertan fruitu gutxi batzuk baino ez ziren oparo batzen (uzkurak, gaztainak eta sagarrak); bestalde, ardi eta aker-azienda txikia eta oinarrizko nekazaritza atzeratua. Egoera honek ozta-ozta bermatzen zuen nekazarien bizibidea eta saltzeko elikagairik ia ez zegoen. Ondorioz, goseteek eta gaixotasunek eragindako heriotzek, sarritan eta aldiro astintzen zituzten gure arbasoak.

1.B.- POBREZIA GAINDITZEA: GAZTELAKO ARTILEA

XIII. mendearen geroztik, Bizkaiak gainditu egin zuen bere pobrezia endemikoa, ondoko Gaztelako erresumako goraldi ekonomikoari eutsiz. Gaztelarrek, bere ardi-azienda aberatsari esker, artilearen exportazioari ekin zioten Bizkaiko itsas portuen bidez (Bermeo eta Bilbo), itsasbideak eta Europako itsas portuak ondotxo ezagutuz euskal arrantzaleen eskutik.

Bizkaitarrak laster konturatu ziren merkataritzarekin aberastu zitezkeela, eta aldi berean sarritan ziren goseteak alendu. Horregatik, gogotsu ekin zioten erosoagoak ziren ibilbideak eratzeari; garraiatze lanak behar zuen segurtasuna eta ordena bermatzen zuten hiri berriak sortu ziren eta ibai-garraioa bultzatu zuten itsasadarrek aprobetxatuz. Merkataritza ibilbide garrantzitsuenetako bat, Gaztelatik Bermeoko itsas porturaino heltzen zen Durango zeharkatuz. Bide honen erdian zegoen Lumoko portu txikia, Gernika izeneko auzoan.

1.C.- BURDINAK BERMATU ZUEN BIZKAIKO EKONOMIAREN SUSPERRALDIA

XIV. mendearen hasieran, Gernikako hiriaren sorrera baino urte batzuk lehenago, Bizkaiak, goraldi sasoia ezagutu zuen, bigarren ekonomia-iraultza: burdinaren eta burdino-iraultza. Horrela gertatu zen, Bizkaiak baldintza ezin hobeak zituelako siderurgiaren industriarako: burdin-minerala ugari, baso eremu handiak eta ibai asko. Faktore hauek guztiek, burdinola sare indartsua eta ekonomia bilbadura garrantzitsua xedatu zuten. Gainera, Bizkaia, artilearen esportazioarako lehendik ezarrita ziren garraio azpiegiturez baliatu zen eta Europarantza bideratu zuen ekoizkin siderurgikoen salmenta (aingurak, ezpatak, aitzurrak, aizkorak, etab.)


Beraz, gaztelar artilea eta burdinaren salerosketari esker, Bizkaiak aurrerapen ekonomiko handia ezagutu zuen. Ekoizkin bien esportazioak sortutako etekinak, itsasontzietan, burdinola berrietan eta abarretan inbertitzen ziren, eta honek, ondorioz, lan gehiago, diru gehiago eta kontsumo handiagoa ekarri zuen.

1.D.- GERNIKA, ON TELLO BAINO ASKOZ LEHENAGOKOA

Gernika ez zuen On Tellok sortu. Toki hau On Tello baino askoz lehenagokoa da (1051 urteko dokumentu batean jadanik, aipatu egiten dira Gernika bera eta Lumo). On Tellok egin zuena izan zen Gernika Lumotik bereizi eta hiribildu izaera eman.

1.E.- GERNIKAKO PORTUA

Gernika, Lumoko auzunetako bat zen. Zazpi edo zortzi etxe hartzen zituen eta itsasadarren ondoan zegoen kokatuta, portu txiki bat eratuz. Gure arbasoak, bere kokapen bikainagatik egonkortu ziren leku honetan, bertaraino heltzen baitzen itsasgora, itsas-garraioa erraztuz, eta toki berean zegoelako itsasadarra zeharkatzeko lehenengo ibi eremua., kostaldetik barrualdera abiatuz.



F. Hierroren akuarela

Horrez gain, Durango eta Bermeoko hiriak lotzen zituen bidearen erdigunean zegoen, eta bazituen baita bide ondo zehaztuak, erromatarren garaikoak.

Antzinako Lumoko portu hura ontzira-leku xumea besterik ez zen, zurez egina eta zamaketa lanak errazteko arrapalekin. Bere ondoan zabalditxo bat zegoen, salerosketarako generoa uzteko (gaur egungo Foru Plaza). Ontzira-leku txiki hark, metamorfosia handia jasan zuen hamarkada gutxitan bizkaiko burdinari eta gaztelako artileari lotutako salgaien eraman-ekarriei esker, portu nahiko garrantzitsua bihurtu zelarik.

Hagatik, portua betetzen hasi zenez, Bermeora joaten ziren eta handik etorri txalupa, itsasontzi txiki eta merkantziekin. Era berean, Gernikako portuaren inguruan agertu zen oparotasunak, animatu egin zituen lagun batzuk bere ondo-ondoan denetariko zerbitzuak ezartzen, biltegiak, bentak, ostatuak etab. Agertu ziren, halaber, enpresa eta lanpostu berriak: txalupetako marinelak; ontziolak txalupak egin eta haien konponketa-lanak burutzeko; salgaietarako zamaketariak; eskualdetik zehar generoa banatzen zuten gurdilariak, etab. Merkataritza jarduera indartsu honek, nekazal eta abeltzain girokoak ziren Lumoko beste auzoen aldean, aberastasun handia ekarri zion Lumoko portua izan zen Gernikari.

1.F.- MEZETATARREK, ABERASTEKO AUKERARI EUTSI

Mezetatarrak portu, bide eta Lumoko lurralde osoaren jabeak ziren. Hauek berehala ohartu ziren beraien aginpeko lurraldean zegoen diru-iturriaz eta ez zuten aberasteko abagunea galdu. Hala bada, denetariko zergak kobratzeari ekin zioten: beraien lurraldetik igarotzen ziren eta portuan sartu eta irteten ziren merkatalgaiengatik, bideak erabiltzearen bidesaria ordaindu beharra, eraman eta ekarten ziren merkatalgaien balioaren hamarrena, beraien inguruetatik zebiltzan abere taldeengatik ere kobratzen zutena. Lumoko uretan aingura botatzearren edo gaua egitearren ere ordaindu behar zitzaien.



Fernando Hierroren akuarela

Ordainketa hauek guztiak bideratzeko, errenteria etxe bat eraiki zuten, eta bertatik igaro behar zuen derrigorrean edozein salgaik. Bertan egiten ziren merkantziak pisatu eta zegozkien zerga guztiak ordaindu.

Beraz, ez da harritzekoa Gernikako portua ekonomikoki desiragarria bihurtu izana, bai Gaztelako koroarentzat, bai Bizkaiko jaunentzat.

2.- GERNIKA LUMOTIK BEREIZIA

Aurrerantzako Bizkaiko jaunek, denek, ahalegin guztiak egin zituzten inguru hori kontrolpean izateko, Lumoko portutik (Gernika) igarotzen zen eta Durangotik Bermeoraino zihoan merkataritza-ardatz hori. Bizkaiko jaunek azken hiri hauek biak, beraien kontrolpean zituzten, baina ez portua, Mezeta familiakoen ondasuna.

On Tellok zirt-zart aldatu zuen egoera hau: 1366ko apirilaren 28an, eta apelaezinezko dekretuz, bereizi egin zuen Gernikako portua Lumotik eta mezetatarren jabetzatik, entitate juridiko berria sortuz: Gernikako hiria.

2.A.- GERNIKAKO HIRI-GUTUNA

Logroñoko Forua

1366ko apirilaren 28an On Tellok Gernikako hiri-gutuna ezarri zuen dekretuz (bertako bizilagunek izango zituzten libertateak, eskubi-deak, bizi-baldintzak eta lurraldeak). Gutun berean, hiri izaera eman zion eta, harrezkero, Logroñoko Foruko legeekin, ez Bizkaikoarekin, gobernatuko zen.

Logroñoko Foruen lege-diak alde onak zituen bere sa-soirako: bere legepean ziren pertsonak jauntxoenganako menpekotasunez libreak ziren; zigor-legeekiko babesaz zuten; jauntxoek gehiegikeriei aurre egiteko berme juridikoa; salerosketarako askatasuna zeukaten; soldadutzatik salbuetsita zeuden (ez zuten eskualdeko jauntxoek ostean derrigorrean borrokatu beharrik); eta beste zenbait salbuespen ekonomiko, artean ezezagunak.



On Telloren hiri-gutunak gernikarrei emandako pribilegioak

Gernikako hiriaren kasuan, On Tellok makina bat pribilegio eman zizkion merkataritza arloan hiri berriari, nagusitasun ekonomikoa izan zezan auzoko zituen beste elizateekiko:

- Merkataritza monopolioa Busturialde osoan, Gernikan (ez beste inon) egin behar zirelarik salerosketa guztiak.
- Nekazal eta abere feriak eta azokak Gernikan, ez beste inon, egiteko agindua eman zuen.
- Gernikarren kontsumorako lehorretik zein itsasoz zetorren merkatal-generoa, zergetatik salbuetsita zegoen.
- Merkatalgai guztiak igaro behar zuten Gernikatik, eta bertan ordaindu beharra zuten zegokien zerga.

Gainera On Tellok honako eskubide hauek eman zizkien gernikarrei:

- Salbuetsi egin zituen zenbait zerga ordaindu behar izatetik.
- Ordaindu behar zituzten zerga apurrak, hiriko bizilagun guztiek ordaindu behar

zituzten, hiritartutako jauntxoak barne, eskubideak eta betebeharrak berdinduz hiriko biztanle guztientzat, bakoitzaren egoera soziala eta ekonomikoari erreparatu barik.

- Gernikarrek eurek beraien agintari politikoak hauta zezaten agindu zuen, eta ez ordura arte izan zen erara, jauntxoek izendatzen zituztelako bere lurraldeko karguak euren interesen arabera.



Gernikazarra taldeko kide batek hiri gutunari jaietako zapia jartzen apirilaren 28an.

On Tellok gernikarrei eman zizkien lurraldeak

On Tellok lurralde zabala eman zion hiriari. Hauek dira Gernikako hiriaren mugak hiri-gutunean agintzen den bezala:

Gernikatik Busturiara.

Handik, Metxikasera.

Handik, Idoibalzagako Andra Marira (Errigoiti).

Handik, Gerekiz, Morga eta Autzaganeraino.

Handik, Ibaruritik, Ajurias, Albiz eta Mendatara.

Handik, Arratzu, Nabarniz, Oma, eta Artegaraino.

Arteagatik Gernikara.

Baina On Tellok ez zituen bereak hain eskuzabal eman zituen lurraldeak, jabeak zeuzkaten-eta: elizateak eta elizate horietako jauntxoak.



On Telloren sarkofagoa (Palencian).Gernikazarra

2.B.- GERNIKAKO HIRI-GUTUNA (transkripzioa).

(Hobeto ulertzeko egungo gaztelaniara moldatuta dago).

Yo, don Tello, conde de Bizkaia, fundo la villa de Gernika en el paraje de Lumo conocido como el puerto de Gernika, y os libero a los pobladores de este lugar de todos los impuestos y tributos, por siempre jamas.

Disfrutad del Fuero de Logroño, y manteneos por él noblemente y bien, en justicia y en derecho. Y que sean vuestros vecinos, y no otros, vuestros alcaldes, jurados, escribanos públicos y oficiales, de modo que podáis impartir justicia a todo hombre que os quiera demandar.

*Además, mando que pertenezcan a vuestra vecindad los solares de Dóndiz, Gernika, Saraspe, Bidaguren, Berqueza, Uribarri, Gorritiz, Urrutxua, Iturralde, Mendoza e Ibina-
rriaga. Y os doy, por siempre jamás. Los siguientes límites: De Busturia al monte Apraiz. De allí, por Bizkarra, a Metxikas, Santa Maria de Idoibalzaga, Gerekiz, La herreria de Morga, Aretxabalaga, Otxeta Aldana, Urrea, Bardian, molino de Unda, Gauria, Albiz, Zube-
roeta, Astorkia, cavas de Gaztiburu, ferreria de Oma. Y de allí, a Artega.*

También os libero durante los primeros ocho años, de todos los impuestos y tributos que me tendríais que pagar. Ordeno que no paguéis impuestos en ninguno de mis parajes. Y que el camino que va de Durango para Bermeo, pase por mi villa de Gernika y no por otro lugar.

*Además, mando que ni en Portuondo, ni en la barra de Mundaka, ni en todo el canal hasta mi villa de Gernika paguéis importe ninguno por nave o barco que vaya a Gernika o salga de ella con sus mercancías, y que no seáis retenidos ni estorbados por razón de nin-
guna tarifa.*

*Igualmente, os libero de pagar en todo mi Señorío impuestos por las mercancías que traigáis o llevéis por mar o por tierra. Del mismo modo, ordeno que tengáis mercado sema-
nal el miercoles, y que no se haga compra, ni venta, ni mercado alguno desde Busturia hasta Oka, salvo en Gernika.*

*Tened para vosotros y para vuestros hijos, por siempre jamas, las iglesias de vuestra vecindad, y el monasterio de San Pedro de Luno, con todos sus diezmos, pertenencias y de-
rechos. Y por el dicho monasterio, pagadme a mi o al que yo os envíe, mil ochocientos ma-
ravedies cada año.*

*Y quien quiera quebrantar o disminuir estas libertades que yo os doy, me pagará mil maravedies. Y a los de la villa de Gernika, todo e laño y el menoscabo que reciban, dupli-
cado.*

Todas estas libertades os las doy a vosotros, los pobladores de mi villa de Gernika,

tanto a los de ahora como a los que en el futuro residan en ella. Y mando a todos los concejos, alcaldes, jurados, jueces, justicias y alguaciles de mi condado de Bizkaia que os los guarden, amparen y defiendan.

Yo os prometo guardar y mantener bien y lealmente todos los usos, fueros, derechos y libertades que os proporciono. Y ni los disminuiré ni iré contra ellos nunca. Y lucharé firmemente para que nadie ose impedirlos, disminuirlos o contrariarlos.

En la villa de Orduña, a veinte y ocho días del mes de abril del año 1366.

Yo, el conde de Bizkaia.



On Telloren sarkofagoa (Palencian).Gernikazarra.

Gernikako fundazioa lumotarren ikuspuntutik.

Historia alorrean, komenigarria da beti gertaera historikoak ikuspuntu ezberdinetatik aztertzea. Gernikako independentziaren kasuan lumotarren ikuspuntutik aztertzen badugu, On Tellok egindakoa lapurretatzat jo daiteke. Honako hauek egin zizkion On Tellok Lumori:

- Indarrez, Lumoko elizateari kendu egin zion bere auzoa eta portu naroa zen Gernika.
- Indarrez, derrigortu egin zituen Gernika auzoko lumotarrak Bizkaiko foruari uko egiten, arrotza zen Logroñoko foruaren alde.
- Indarrez, ebatsi egin zizkion Lumori eta inguruko beste elizateei, beraienak ziren lurraldeak, Gernikari emateko.
- Indarrez, hainbat eskubide eta pribilegio eman zizkien Gernikako hiri berriko biztanleei, Lumoko eta bere ondoko beste elizateetako bizilagunak, bigarren mailako bihurtuz.
- Indarrez, aldatu egin zuen Durango eta Bermeo lotzen zuen ibilbidea, artean Lumotik igarotzen zena, eta derrigortu egin zituen bidaiari guztiak Gernika zeharkatzen, zergak bertan ordainaraziz.
- Indarrez, inposatu egin zuen merkatua, feria eta salerosketa guztien egoitza Gernikan, beste elizatekoak kenduz eta monopolio ilegala eta bidegabekoa sortuz.
- Indarrez kendu zizkion Lumori bere San Pedro parrokiako elizak zituen eskubide eta zergak, Gernikako hiri berriari emateko.



Fernando Hierroren akuarela

Ondorioak:

- Ekonomikoki, Gernikan hiria sortzeko bi arrazoi nagusiak hauek izan ziren: Lehenengo eta behin, bere itsas portu izaera, etorkizun handikoa merkataritza eta ekonomia alorrean. Bigarrenez, bere kokapen estrategikoa, Durango-Gernika merkataritza ardatzaren erdigunean.
- On Tellok eskubide ekonomiko ugari eman zizkion hiribilduari eta salbuetsi egin zuen zenbait zergen ordainketatik. Aldi berean, murrizketa handiak ezarri zizkien merkataritzan eta ekonomia arloan Busturialdeko elizateei, beti Gernika ekonomikoki eskualde-buru bihurtzeko asmoarekin.
- Gernikak artisautzari eta salerosketari ekin zion batez ere eta Lumok, aldiz, jarraitu egin zuen bere landa giroan murgilduta, nekazal eta abeltzain jarduerekin.
- Juridikoki, Gernikako hiriaren sorrerarekin eskualdean erabat aurkariak ziren bi legedi izan ziren indarrean: Bizkaiko Forua alde batetik (elizateetan), eta Logroñoeko Forua bestetik (hirian).
- Hiriko mailaketa soziala eta elizateena guztiz ezberdina izango da aurrerantzean. Gernikako biztanle guztiak, jauntxo, aitunen-seme zein herritar xeheak edo maizterrak izan, denek zuten zergak ordaindu beharra eta eskubide berberak.
- Politikoki, Gernikako bizilagunek, beraiek aukeratzen zituzten haien alkateak, epaileak, eskribauak eta abarreko kargu publikoak. Lumo aldean, berriz, jauntxoek, bere botereaz baliatuz, izendatu eta kendu egiten zituzten kargu publiko guztiak.

3.- ON TELLOREN BIOGRAFIA

Zatiketaren erantzulea

On Tello gaztelarra, 18 urte zituelarik Bizkaiko Andrea zen Juana Nuñez de Lararekin ezkondu zen eta horrela Bizkaiko Jaun ezkontide bihurtu zen.

On Tello Gaztelako Alfonso XI.aren hiru semeetariko bat zen. Bere anaiak, Pedro eta Enrique ziren. Aita hil ostean, hiru anaiak nahi izan zuten errege izan. Pedrorengana joan zen azkenean koroa eta bere bi anaiak matxinatu egin ziren erregetzatik kentzeko. Pedrok aurre egin zien eta penintsula osotik jazarri zien.

On Tellok Bizkaia egin zuen ihes eta Bermeoraino heldu zen, handik Baionara joateko erbestera. Errepresalia moduan oste jazarleek Bizkaiko Andrea atzeman zuten eta exekutatu Bilbon. Era berean, Bizkaiko Batzarrek On Telleri Bizkaiko Jaunaren titulua kentzea lortu zuten, eta harenganako menpekotasun guztietatik ere askatu.

Urte batzuk beranduago, matxinatuen osteek Pedro erregearenak gailendu eta erregea bera hil zuten. Orduan Enriquek hartu zuen Gaztelako koroa, eta On Tello saritu zuen Bizkaiko konde izendatuz. On Tellok Logroñoeko Forua zabaldu zuen Bizkaitik hiribildu berriak sortuz: Markina (1355), Elorrio (1356), Gerrikaitz (1366) eta Gernika (1366ko apirilaren

26an).

On Tello 1370eko urriaren 15ean zendu zen Medellinen, 35 urte zituela, eta Palenciako San Francisco monastegian eman zioten lur. Han, zerraldo batek gordetzen du bere gorpua. Ez zuen izan ondorengotzarik Juana Andrearekin eta bere heriotzarekin galdu egin zen Bizkaiko konde titulua.

4.- LUMO ETA GERNIKAREN ARTEKO LISKARRAK

Arestian aipatu bezala, 1366an Gernika Lumoko auzoa izatetik Urdaibai erdia hartzen zuen lurralde zabal baten jabetza zeukan udalerrri independente bihurtu zen. Gainera On Tellok hainbat eta hainbat pribilegio ekonomiko eman zizkion. Den dena helburu bakar batekin: Gernikak kontrolatu behar zuen eskualde osoa politiko eta ekonomikoki. Baina elizateak altxatu egin ziren, euren ustez gehiegikeriak ziren erabakien kontra eta auzibidera jo zuten, sortu berria zen hiriaren kontra.

4.A.- TIRABIRAK LURRALDEAREKIN



Banaketaren lehenengo uneetan, Lumo erabat konkortuta zegoen, norabiderik gabe, baliabide ekonomikorik gabe, eta Mezetatarrek ez zuten gainera altxamendu honetan inolako gidaritzarik hartu. Hala ere, ez Lumok ezta Mezetatarrek ez zuten etsi eta ez zituzten galdutzat ematen beraienak izanikoak eta On Tellok Gernikari emandako lurraldeak. Zalantzarik ez, Gernikako hiribilduaren fundazioa, hondamendi ekonomikoa eta politikoa izan zen Mezetatarren leinukoentzat, galdu egin baizituzten portuarekiko eskubideak, San Pedro elizak kobratzen zituen zergak, eta batez ere lurraldea. Ez da harritzekoa bada, ahalegin guztiak egin izana hiria sor ez zezaten. Baina alferrikakoak izan ziren. Arrazoi horrexegatik, estrategiaz aldatu eta bide berriak urratu zituzten, hiriak On Tellorengandik hartutako eskubideak negoziatzeko, Gernika guztiz ahaltsuarekin.

Laster izan zuten abagunea. Edateko urez Gernika hornitzen zuen erreka baxa Lumotik behera heltzen zen hirira, Andra Mari elizaren atzetik, eta Mezetatarrek desbideratu egin zuten ubidea, gernikarrak edateko urik gabe utziz. Egoera jasanezin honen aurrean, Gernikak berehala deitu zituen Mezetatarrek arazo korapilatsu hura konpontzeko. Horrela, 1366ko ekainaren 15ean, Gernika sortu zenetik 48 egun bakarrik bete zirela, Mezeta leinuko Juan Sanchezek itun bat sinatu zuen Gernikarekin, edateko uraren truke lehengo zenbait eskubide eta salbuespen berreskuratuz; besteak beste, merkataritzari lotutako zergen diruak, eta beraientzako erreterria funtzioa beteko zuen etxe bat eraikitzeko baimena, hirian bertan. Gainera San Pedro elizaren jabetza berreskuratu zuten.

Lurraldeagatik zituzten tirabirekin gogaituta

Hau izan zen hamarkadetan eta mendeetan esku artean izan zuten eztabaida nagusia. Kereilaz kereila, auziz auzi, 213 urteko liskarren eraginez ekonomikoki krak egin zuten udalerri biek. Auziak luzeak eta garestiak ziren eta Gernika eta Lumoko auzokideak borroketan, iskanbiletan, errietan eta gorrotoan murgilduta bizi izan ziren belaunaldiz belaunaldi.

213 urte luzeetan, denetariko sententziak izan ziren, bata zein bestearen aldekoak. Bere burua kaltetua ikusten zuenak berehala sartzen zuen salaketa eta jartzen zuen auzi berri bat martxan, udalerri biek dirutzak gastatu behar zituztelarik epaiketak ordaintzeko. Udalen ondarea ere arriskuan jarri zuten biek eta gainera, azkenean, sententziak eta erabakiak ez ziren inoren gustokoak, ez batarentzat ez bestearentzat.

Goi mailako erakunde politikoak eta judizialak ez ziren gatazkari irtenbidea emateko gauza. Ondorioz, guztiak zeuden oso haserre eta amorru bizian.



Mugarria

Mugarritze berri baten beharra

Kontuak kontu, mailarik goreneko erakunde politiko eta judizialek mugarritze berri bat egitea erabaki zuten, oraingoan zehatza eta betikoa, Gernika eta Lumoren arteko lurraldeak eta jurisdikzio zalantzak argitzeko. Artean, mugaketa ez zen izan inoiz argia, eta gainera norberaren interesen arabera interpretagarria zen oso legedi nahasian oinarrituta zegoen.

Honela, 1576ko urtarilaren 19an (San Sebastian bezperan, Gernikako zaindaria) Bizkaiko Jaurerriko Korregidoreak, mugarritze berriari ekin zion:

Primer mojón:

Y el corregidor hizo poner un mojón de piedra en la esquina del camino real que pasa desde la villa hacia la renteria, y en la esquina de la sacristia de la iglesia del señor San Juan.

Segundo mojón:

Y (...) el corregidor fue desde la calzada que va pegada a la pared de la iglesia de San Juan hacia arriba de la villa. Y llegado a la calzada que está en el portal de la calle, mandó poner otro mojón.

Tercer mojón:

Y (...) el corregidor hizo poner mojón en el portal de la calle Azoque.

Cuarto mojón:

Y (...) el corregidor, llegado al camino que pasa por encima de la villa desde Durango a Bermeo, a la esquina de las casas de Domingo Martínez de Zearreta, mandó poner otro mojón de piedra.

Cuarto mojón:

El corregidor (...) hizo poner en la calle Somera otro mojón de piedra.

Quinto mojón:

El corregidor llegó a la ladera de las casas, donde hizo poner otro mojón de piedra.

Sexto mojón:

El señor corregidor (...) fue a dar a la punta de la iglesia y al camino que va desde la ella para Nuestra Señora La Antigua, donde hizo poner otro mojón.

Séptimo mojón:

El corregidor hizo poner otro hito y mojón en frente del portal de la calle Somera.

Octavo mojón:

Y el corregidor, (...) quedando por mojonera la calzada que va a dar a la esquina de las casas de Sancho Martínez de la Rentería, (...) mandó poner otro mojón de piedra.

Noveno mojón:

Y el señor corregidor (...) fue a dar a un caño y calzada que está en el camino real que pasa por la renteria. Y arrimado al caño y fuera de la calzada por de la villa, hizo poner otro hito y mojón de piedra.

Hiriak ezin zuen onartu gogo-onez mugarritze berria, bere askatasun politikoa eta ekonomikoaren kontrako eraso zuzena zelako. Beraz, auzia jarri zuten haren aurka. Baina alferrik. Bizkaiko Jaurerriak eta Ajangizko eta Lumoko elizateek ez zioten utziko Gernikari historikoki, moralki eta orain baita legez euren zena. Azkenean, 1579an bidali zen sententzia bat medio, amaiera eman zitzaion auziari mugarritzea legezkotzat jota eta agindua eman zen errekurtsio eta liskar guztiak amai zitezen.

Mugarritze honekin Gernika eskualdeko udalerri handiena eta boteretsuena izatetik, 30.000m karratuko perimetrora murriztuta geratu zen, itxi-itxia eta orain boteretsu bihurtu zen Lumoko elizateak inguratuta.

4.B.- MERKATU ETA FERIEN MONOPOLIOAREN AMAIERA

Gernikako hiriaren hiri-gutunean, On Tellok debekatu egin zuen merkatuak eta feriak antolatzea Busturiadeko elizateetan, Gernikaren mesederako.

Hiriek, eta ez beste inork, izango zuen asteroko merkata, eta hiriak soilik antolatuko zituen nekazal eta abeltzain feriak. Monopolio honekin On Tellok bermatu egiten zion hiriari merkatal generoarekin egiten zen salerosketaren zergen diru-sarrera, Busturialdeko elizateen kalterako.

Gainera, Gerniak onartezinak ziren beste gehiegikeria batzuk jauki zituen. Adibidez, salerosketarako elikagaiak hiriaren barruan gorde behar ziren derrigorrean, eta gernikarrek zuten lehentasuna beharrezkoak zirenak erosteko. Gero, gernikarrek soberan utzitako merkatal-generoa eros zezaketen elizateetako beste bizilagunek eta hau – urritasun ekonomiko eta elikagai eskasiaren sasoian- elizateekiko eraso iraingarria eta larria zen.

Noski, Lumok eta kaltetutako beste herriguneek, gehiegikeria hauen kontrako auzia aurkeztu zuten, eta beraien aldekoa izan zen sententzia. 1598an, auzi-erabaki batek kendu egin zion Gernikari merkataritzaren monopolioa eta merkatu berri bi baimendu zituen Gernikatik kanpo: bat Lumoko auzunea zen Saraspen eta, bestea, Errenteriako portuaren inguruan, Ajangizen.

ERANSKINA - ARIKETAK

1.- **DEFINITU** hitz eta kontzeptu hauek: hiria, elizatea, forua, monopolio, hiri-gutun, jaun-txo, mugarritu, feria, merkatu.

2.- IKERTU:

Gernikako hiriak kale hauek hartzen ditu: Allende Salazarren ekialdea, Goienkalea, Azokakalea, Artekalea, Barrenkale barrena, Ocho de Enero kaleko mendebaldea, Andra Maria kalea, Adolfo Urioste kaleko iparraldea eta San Juan kaleko hegoaldea.

- Ikertu Gernika-Lumokoak diren zure ikasgelako lagunen jaiotza kalea. Ondoren, erantzun ertaroan hirian ala elizatean biziko ziren.
- Aztertu, jaiotza tokiaren arabera, Bizkaiko Foruaren ala Logroñoakoaren legepean egongo ziren.
- Foru lege bietatik zein deritzozu onena? Arrazoindu zure erantzuna.
- Arakatu zergatik Gernikako hiria zen Lumoko elizatea baiño aberatsagoa.
- Seinalatu Urdaibaiko mapa batean On Tellok Gernikako hiriari oparitu zizkion lurraldeak, eta seinalatu egun norenak diren.
- Bilatu merkatalgaiak eramateko gabarrak, gurdiak, zabaldeak erakusten dituzten irudiak.

3.- ENPATIA ariketa:

1366. urtean, On Tellok askatu egin zuen Gernika Lumotik eta hainbat eta hainbat pribilegio eman zizkion, ondoko udalerriek kentzen zizkien aldi berean:

- Imaginatu 1367an gaudela. Lumotarra zara eta gutun baten bidez azaldu behar duzu gertatutakoa. Idatzi dezakezu On Tellok zure herriari eginikoa, zure iritzi pertsonala emanek?
- Orain Gernikarra zara eta, era berean, gutun baten bidez azaldu behar duzu gertatutakoa. Idatzi kasu honetan ere zure iritzi pertsonala.

4.- HAUSNARTU:

Auzi bat egingo diogu On Telleri. Zer izan zen pertsonaia hau? Tiranoa eta lapurra? Askatzailea?

- Ikasle batzuk On Telloren kontrako abokatu fiskalak izango dira. Horretarako bildu eta idatzi egin beharko dituzu kondenatzeko argudioak.
- Beste ikasle talde bat On Telloren aldeko abokatuak izango dira eta hauek ere argudioak bilatu eta idatzi beharko dituzte, berak egindakoa eskertzeko.
- Hirugarren talde batek epaile lanak beteko ditu eta On Telloren aldeko eta kontrako datuak kontuan izanik, epaitu egingo dute.

EGILEA



ARGITARATZAILEA ETA BABESLEA

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



LAGUNTZAILEAK

